

Nola sartuko dut txip-txartela Izenperen nire Token USBan?

Izenperen Token USB berria izanez gero, eta ziurtagiriaren txiparekin trokelatutako txartela sartu behar badiogu, pauso hauek eman behar ditugu:



Posizio honetan jarri behar da tokena jarraian zehaztuta dauden jarraibideak betetzen hasteko.

1. Irakurlea karkasatik aterako dugu

USB konektorearen gainean presioa egingo dugu eta plaka nagusia tokenetik kenduko dugu partzialki.



2. Orientazio egokia egiaztatuko dugu.

Plaka nagusiaren posizio zuzena detektatzeko, Mini-SIM txipa (2FF) irakurtzeaz arduratzen diren 3 pinetan jar dezakegu arreta. Gainera, tokenaren plaka nagusian Mini-SIMa sartu behar deneko posizioa adierazita dagoela ikus dezakegu.

3. Txipa sartzea

- Txartela posizio egokian jarriko dugu.
- Txipa tokenean sartuko dugu.
- Objektu fin batekin, txipa eta SIMa guztiz estutuko dugu.



4. pausoa: Tokena itxi.

